


EKONOMIA SENTIMENDUA EUROPAN


Erresuma Batuak Europako sentimendu ekonomikoa lastatu du

Ekonomia sentimendua Europar Batasunean





Europako Batzordeak egiten duen ekonomia sentimenduaren adierazleak beste urrats bat eman du irailean 2018ko urtarrilean hasi zen igurikimenak hozteko prozesuan. Izan ere, Europar Batasunak jaso zuen datua 100,0 zen, 1990etik jaso den batez bestekoarekin bat eginez. Beraz, oraindik ez da ezkortasuneko egoera bat, neutroa baizik. Euroguneko bi herrialde nagusiek bilakaera kontrajarriak eskaini dituzte. Alde batetik, Alemaniak nabarmen okertu du bere emaitza 99,4an kokatu arte, hots, batez bestekoaren azpitik. Aitzitik, Frantzia eremu positiboan dago, 103,9 batekin. Alemaniako sektorerik ezkorrena industria da, baina zerbitzuek ere perfil negatiboa erakusten dute. Frantzian, ordea, sektore guztiek batez besteko bali-oa gainditzen dute, bereziki eraikuntzak eta zerbitzuek.

Ekonomia sentimendua Alemanian





Ekonomia sentimendua Frantzian



Ekonomia sentimendua Erresuma Batuan

Adierazle horren arabera, Erresuma Batuan konfiantza amildu da. Iraileko datua (88,0) batez bestekoaren oso azpitik dago eta 2012ra itzuli behar da hori baino datu okerrago bat aurkitzeko. Eraikuntzak bakarrik erakusten du nolabaiteko baikortasuna, baina industria, zerbitzuak eta txikizkako merkataritza oso maila apaletan daude, nahiz eta oraindik 2009an jasotako minimoetatik urrun egon.

Italiak 99,9ko balioa eskuratu zuen irailan, batez besteko historikotik oso hurbil. Herrialde horretan, ezkortasuna industrian eta zerbitzuetan hautematen da, nahiz eta bi sektore horien datuak bereziki negatiboak ez diren. Aitzitik, kontsumitzaileen konfiantzak ez du kalterik izan une ekonomikoagatik eta bai txikizkako merkataritza bai eraikuntza une gozoan daude, batez besteko balioetatik nabarmen gorago.

Ekonomia sentimendua Italian**Ekonomia sentimendua Espainian**

Espainiaren datuak okerrera egin zuen abuztuko emaitzaren aldean, baina oraindik ekonomia sentimendu altuena duten herrialdeetako bat da (104,2). Hala industriak nola eraikuntzak hilabeteko emaitza okertu dute, baina batez besteko historikoaren gainean jarraitzen dute. Kontsumitzaileen konfiantza altua da oraindik eta bai txikizkako merkataritzak bai zerbitzuek aurreko hilekoetako balioen antzeko emaitzak jaso dituzte.